

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2016ko urriaren 17tik urriaren 21erako astea

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


ASTE HONETAN MERKATUETAN

GURE IKUSPEGIA

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI EUROGUNEA



Datuaren analisia

Irailako UEMen behin betiko KPIak +% 0,4rainoko igoera (u.) baieztatu bazuen ere, etsigarria izan zen zerbitzuen prezioen aurrerapenean erakutsitako geldialdiagatik, aurreikuspenek azelerazio txiki bat iragarria zutelako. Hala ere, energiaren prezioen jaitsiera txikiagoak (-% 5,6tik -% 3,0ra u.) orekatu zuen igoera hori.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EBZREN BILERA



Datuaren analisia

Azken bileran, EBZk bere horretan utzi zuen diru-politika, eta abendura arte atzeratu zuen erosketen programa aldatzeko erabakia, QEren amaiera zakar baten aurrean zeuden beldurrak uxatuz. Hazkunde eta inflazio arriskuak behetik kalkulatuta daudela errepikatu zuen erakundeak, eta beraz, finantza-baldintza hedakorrak emango direla jasotzen du bere aurreikuspenetan. Azkenik, komunikatuaren nobedadeetako bat agintari politikoenganako tonu gogorragoa eta haiei egindako erabateko inplikazio eskaera izan ziren: “Egiturazko erreformak beharrezkoak dira euroguneko herrialde guztietan.”


Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentralean Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak bultzatu beharko ditu ere, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisia

Irailean, KPlak gora egin zuen, aurreko +% 1,1etik +% 1,5eraino (u/u), aurreikusitakoa betez. Tasarik handiena da 2014ko urritik, eta hazkunderik handiena urte osoan. Aurrerapauso hau energiaren (+% 2,9 u/u), garraioaren (+% 1,0) eta etxebizitzaren (+% 0,4) prezioen igoerari esker gertatu zen. Adierazle honen arabera, inflazioa pixkanaka handitzen ari da, eta horrela, Fed-ek abenduan tasak igotzeko daukan asmoa indartzen ari da. Elikagaien eta energiaren prezioak kontuan hartu gabe (zatiirik hegazkorrenak), azpiko KPlak % 0,1eko igoera izan du, merkatuak aurreikusitakoa baino pixka bat apalagoa.


Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BPGd



Datuaren analisia

Hirugarren hiruhilekoko BPGd-ak % 6,7 egin zuen gora iazko epe berarekin alderatuta, aurreikusitakoa betez. Gobernuaren gastu handiagoak eta higiezinaren sektorearen gorakadak esportazioen ahultasuna orekatu zuten. Ildo horretatik, datuek erakusten dute ekonomia kontsumoaren hazkundera bideratuta dagoela, eta sektore publikoa dagoela inbertsioaren buruan.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
10/24	Japonia	Urte arteko esportazioak	-% 10.8
10/24	Japonia	Urte arteko inportazioak	-% 17.0
10/24	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
10/24	Frantzia	Frantziako fabrikazioaren PMIa	50.0
10/24	Frantzia	Frantziako Zerbitzuen PMIa	53.0
10/24	Frantzia	Frantziako Composite PMI	52.8
10/24	Alemania	Alemaniko fabrikazioaren PMIa	54.4
10/24	Alemania	Alemaniko Zerbitzuen PMIa	51.5
10/24	Alemania	Alemaniko Composite PMI	53.3
10/24	Eurogunea	Euroguneko fabrikazioaren PMIa	52.7
10/24	Eurogunea	Euroguneko Zerbitzuen PMIa	52.4
10/24	Eurogunea	Euroguneko Composite PMI	52.8
10/24	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	-0.13
10/24	Estatu Batuak	AEBtako fabrikazioaren PMIa	51.5
10/25	Frantzia	Enpresen konfiantza	102
10/25	Alemania	IFO enpresen egoera	109.6
10/25	Estatu Batuak	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	101.0
10/25	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	-4
10/26	Alemania	GfK kontsumitzailearen konfiantza	10.0
10/26	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	98
10/26	Italia	Urte arteko xehekako salmentak	% 0.5
10/26	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.1
10/26	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
10/26	Estatu Batuak	Etxebizitza berrien salmenta	600k
10/27	Espainia	Langabezia tasa	% 19.30
10/27	Eurogunea	M3 YoY diru-eskaintza	5.1
10/27	Italia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	108.6
10/27	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.3
10/27	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 0.1
10/27	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	255k
10/27	Estatu Batuak	Etengabeko eskaerak	--
10/27	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmenta	% 1.1
10/27	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	3
10/28	Japonia	Langabezia	% 3.1
10/28	Japonia	Urte arteko KPIa	-% 0.5
10/28	Frantzia	Hiruhileko BPGd	% 0.3
10/28	Frantzia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 0.6
10/28	Espainia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 0.3
10/28	Espainia	Hiruhileko BPGd	% 0.7
10/28	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	104.9
10/28	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-8.0
10/28	Alemania	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 0.7
10/28	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 2.5
10/28	Estatu Batuak	Sentimendua Michigango Unibertsitatea	88.2

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK

Aste positiboa burtsa-indize nagusientzat. Europan, adierazle ekonomikoak bigarren maila batean geratu ziren, EBZren bilera izan baitzen asteko gertakari nagusia. Erakundeak bere horretan utzi zuen diru-politika, eta abendura arte atzeratu zuen erosketen programa aldatzeko erabakia, QEren amaiera zakar baten aurrean zeuden beldurak uxatuz. Erabaki horiek katalizatzaile lana bate zuten Europako burtsa nagusietan, eta denek itxi zuten astea igoera nabarmenekin. Batez ere Espainiako eta Italiako bankuen % 3tik gorako igoerak nabarmendu ziren, bankuen portaera onak lagunduta. Itxiera positiboak, baina igoera pixka bat apalagoak Atlantikoaren beste aldean. Adierazle makro garrantzitsurik gabe, Amerikako burtsak Txinatik zetozen albiste onak eta finantza-sektorea protagonista izan zuen emaitzen denboraldiaren hasiera ona zituzten oinarri. Asiako erraldoiak bere ekonomiaren egonkortasuna baieztatu zuen, eta hirugarren hiruhilekoan % 6,7ko igoera izan zuen.

Beste alde batetik, herrialde gorakorretako merkatu nagusiek itxiera positiboak izan zituzten. Bere interes-tasen jaitzieraren ondorioz, Brasileko burtsak izan zuen igoera nabarmendu behar da oroz gain.

ERRENTA FINKOAK:

Iragan asteko tasen igoeraren ondoren, aste honetan tasek berriro egin zuten behera, EBZren diskurtsoari esker, eta Estatu Batuetako azpiko inflazioa espero baino gutxiago hazi zelako. Ildo horretatik, hamar urterako Amerikako bonuaren errentagarritasunak 6 oinarrizko puntu egin zuen behera, hamar urterako Alemaniako zorraren errentagarritasunak bezala. Merkatu periferikoetan, DBRSk egin zuen Portugaleko zorraren ratingaren berrikuspenak bereganatu zuen arreta osoa, eta azkenean bere notari eustea lortu zuen. Fitchek, aldiz, Italiako zorraren etorkizuneko maila jaitsi zuen, egonkorretik negatibora. Espainian, arrisku-prima 110 oinarrizko puntuetaraino igo zen, hamar urterakoa % 1,12raino jaitsi zen bitartean.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroaren jaitsiara arina dibisa nagusien aurrean. EBZren bilerak joera hori areagotu zuen. Hegazkortasun handia petrolioaren prezioan, nahiz eta asteko itxiera laua izan zen. Hau guztia ekoizpen maila altuak eta LPEEko kideek ekoizpena murrizteko hartutako akordioaren ahuldadeak markatutako testuinguruan.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
MSCI WORLD (Local)	1.304,85	0,64	2,12
IBEX 35	9.100,40	3,79	-4,65
DJ EURO STOXX 50	3.077,65	1,73	-5,81
DJ STOXX 50	2.865,64	1,17	-7,57
FTSE	7.020,47	0,10	12,47
S&P 500	2.141,16	0,38	4,76
Dow Jones	18.145,71	0,04	4,14
NASDAQ	5.257,40	0,83	4,99
NIKKEI 225	17.184,59	1,95	-9,71
MSCI EMERGENTES (Lo	49.217,43	1,36	10,64
MEXBOL	48.418,40	1,50	12,66
BOVESPA	64.108,08	3,79	47,88
SHANGHAI	3.236,31	0,91	-12,63
Rusia Rts Moscú	986,37	0,34	30,29

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	2006 ald
ALEMANIA 2 URTE	-0,66	0,00	-0,32
ESPAINIA 2 URTE	-0,21	0,00	-0,22
AEB 2 URTE	0,82	-0,01	-0,22
ALEMANIA 10 URTE	0,01	-0,05	-0,62
ESPAINIA 10 URTE	1,12	-0,01	-0,66
AEB 10 URTE	1,73	-0,06	-0,53
ALEMANIA 30 URTE	0,62	-0,06	-0,87
ESPAINIA 30 URTE	2,22	-0,02	-0,76
AEB 30 URTE	2,48	-0,07	-0,53
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	71,09	-2,83	-6,18
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	319,58	-13,41	4,96

(*) Erreferentzia aldaketa

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
Dolarra / Euroa	1,09	-0,80	0,20
Yena / Euroa	112,96	-1,16	-13,51
Libera / Euroa	0,89	-1,16	20,78

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2016ko % Ald
Petrolio (Brendt)	50,00	-0,71	39,86
Urrea	1.266,28	1,19	19,30

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.